

Hitzaurrea



z dira alferrik bi urte pasatu *Behinola* lehenengo aldiz plazaratu zenetik. Joan den mendeko udazken hotz hartatik hona bost kimu atera baitzaizkio aldizkariaren enbor gazteari, Haur eta Gazte Literaturaren arloan sakondu eta informatzeko ahaleaginean. Eta, hain zuzen ere, bosgarren zenbakia da eskuartean duzun hauxe, beti bezala berritasunen bat plazaratzeko asmotan.

Oraingo zenbaki hau Haur eta Gazte Literaturaren kritikaren inguruan dabil jirabiraka: «Hitz eta Pitz» saileko elkarrizketan, Antonio Ventura editore madrildarrak arloko kritikaz dituen ikuspuntuak azaldu dizkigu; eta «Hizpide» delakoan, berriz, Manu Lopez Gaseniren artikulua bat eskaintzen da, kritikaren gaia hizpide harturik, orobat.

«Hitzordu»ra, Bernardo Atxagak emandako hitzaldi baten transkribaketa ekarri dugu. Hitzaldia Iruñean eman zen 2000ko maiatzaren 5ean, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak antolatutako formakuntza ikastaroen barnean.

Beste eduki batzuetara pasatuz, «Hitzontzi»ra Johann Peter Hebel-en *Cofrecillo de joyas* liburuko ipuin baten bertsioa ekarri dugu, Patxi Zubizarretak prestatua «Hiru lapurrak» titulupean.



Mikel Valverde. *Durango-Durango*

Hitzaurrea

«Hitzatzea» Iban Zalduari zor zaio zenbaki honetan, eta «Amaitzen asmatzea» gaiari buruzko hausnarketa egiten du seriaturiko zenbait komiki oinarri harturik.

Erreseinek bere tokia daukate, beti bezala, *Behinolako* zenbaki honetan ere: gure kolaboratzaileek igorri nahi izan dizkiguten guztiak «Hitz beste» aurkituko dituzu hemen bildurik, hogei bat, ohi bezala.

Edergarriak eskertzeko txanda iritsita, gure portada eta barruko marrazki ugariak Mikel Valverderen eskutik datozkigu: oso berea eta identifikagarria den estilo horretatik harantzago joanez beste mota batekoak ere eskaintzen dizkigu.

Eta, udazkeneko bezala, zenbakia ixtear geneukala Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Sariaren berri iritsi zaigu: aurtengoan Karlos Linazasoro gure bazkide eta kolaboratzaileari eman diote *Bota gorriak* izeneko liburugatik (Anaya-Haritz, 2000). Zorionik beroenak *Behinola* eta *Galtzagorri* osatzen dugun guztion partetik.



Mikel Valverde, Jose Mari Nekazari